

XIII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Jainko Jauna,
zure seme-alabatzat hartuz, argiaren seme-alaba egin gaituzu;
iguzu, ez gaitzala inguratu gezurraren ilunbeak,
eta zure egiaren argi ederrean bizi gaitezela beti.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: 1 Erg 19, 16b. 19-21

Eliseo jaiki zen, eta Eliasi jarraitu zion.

Erregeen liburutik

Egun haietan, Jaunak honela esan zion Eliasi: «Zure ondorengo profeta bezala gantzutu ezazu Eliseo, Safaten semea, Abel-Mejolakoa».

Joan zen, bada, Elias menditik, eta Eliseo, Safaten semea, goldean aurkitu zuen; hamabi idi-pare aurrean, berak hamabigarrena zeramala. Ondotik igaro zen Elias, eta bere soingainekoa bota zion bizkarrera. Eliseok, utzi zituen idiak, eta Eliasengana lasterka joan zen eta esan zion: «Arren, utzidazu aitari eta amari muin ematera joaten, eta jarraituko dizut orduan». Eliasek esan zion: «Zoaz, eta etorri. Badakizu zer egin dizudan».

Bihurtu zen Eliseo; eta idi-parea hartu eta oparitan hil zuen; uztarri eta lan tresnekin su egin, haragia erre eta bere jendeari jaten eman zion. Gero, jaiki eta Eliasi jarraitu zion, eta haren esanera jarri zen.

ERANTZUN SALMOA: Sal 15, 1-2a eta 5. 7-8. 9-10. 11

R/. **Zu zara, Jauna, nire ondarea.**

Zaindu nazazu, Jauna,
babes bila bainator Zugana.
Honela diotsot Jaunari: «Zu zaitut neure jabe»;
Jauna da nire ondare eta edontzia;
Zuk daukazu eskuetan nire zoria. R/.

Onesten dut Jauna, aholku eman didalako,
gauzez ere neure bihotzak oharrarazten nauelako.
Begi aurrean ipintzen dut beti Jauna;
eskuinean daukadala, ez naiteke dardara. R/.

Horregatik alai daukat bihotza, pozik barrena,
haragi honek ere bakean du atsedena.
Ez baituzu nire bizia Leizera egotziko,
eta zure zintzoa ustelak hartzen utziko. R/.

Bizirako bidea erakutsiko didazu:
alaitasun betea zeure aurrean,

betiko atseginak zeure eskuinean. R/.

II. IRAKURGAIA: Ga 5, 1. 13-18

Askatasunera deituak izan zarete.

San Paulo Apostoluak Galaziarrei

Senideok: Askatasunean bizitzeko askatu gaitu Kristok; irauzue, beraz, sendo, eta ez sartu berriro morrontz uztarpean.

Zuek, ene senideok, askatasunera deituak izan zarete; baina ez bekizue izan askatasun hori norberekoikeriarako; baizik eta maitasunez izan zaitezte elkarren zerbitzari. Lege osoa agindu bakar honetan dago betea: «Maita ezazu zeure lagunurkoa, zeure burua bezala». Baina elkarri hozka egiten eta elkar jaten bazabiltzate, azkenik batak bestea desegingo duzue.

Hau diotsuet: ibil zaitezte Espirituari dagokionez, eta ez dituzue beteko haragiaren irrisak. Haragiak Espirituaren aurka irrikatzen baitu; eta Espirituak, haragiaren aurka. Bi horiek elkarren aurka dabilta; horregatik, ez duzue nahi zenuketena egiten. Espirituak eragiten badizue, ordea, ez zaudete Legepean.

EBANJELIOA: Lk 9, 51-62

Aleluia: 1 Sm 3, 9; Jn 6, 69b

R/. Aleluia.

V/. Mintza, Jauna; zure morroi hau entzuten dago.

Zuk dauzkazu betiko biziaren hitzak. R/.

*Jerusalenako bidea hartu zuen adore haundiz.
Jarraituko dizut, noranahi zoazela.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Jesusek, zerura jasoia izateko garaia hurbiltzen ari zelarik, Jerusalemako bidea hartu zuen adore haundiz, eta mandatariak bidali zituen aurretik. Bidez zihoazela, Samariako auzo batean sartu ziren, ostatua prestatzera. Baina ez zioten ostaturik eman, Jerusalemako zihoalako.

Santiago eta Joan ikasleek, hori ikusita, esan zioten: «Jauna nahi baduzu esango dugu: zerutik sua jaitsi dadila eta erre ditzala!»

Jesusek, itzulirik, haserre egin zien, esanez: «Ez dakizue nolako espiriturenak zareten. Gizonaren Semea ez baita etorri gizonak galtzera, salbatzera baizik». Eta beste auzo batera joan ziren.

Bidez zihoazela, batek honela esan zion: «Jarraituko dizut, noranahi zoazela». Jesusek erantzun: «Azeriek badituzte zuloak, eta zeruko hegaztieki habiak; baina Gizonaren Semeak ez du, burua non etzanik».

Eta beste bati esan zion: «Jarrai Niri». Baina hark erantzun: «Jauna, utzidazu lehenik, nire aitari lurra ematera joaten». Jesusek erantzun zion: «Utziezu hilei, beren hilei lurra ematen; zu zoaz Jainko erreinuaren berri ematera».

Beste batek esan zion: «Jarraituko dizut, Jauna; baina utzidazu lehenik, nire etxekoei agur egiten». Jesusek esan zion: «Eskua goldeari ezarri eta atzera begiratzen duena, ez da gai Jainkoaren erreinurako».

Oparigaien gainekoa

Jauna, Zuk ematen diezu sakramentuei bere indarra;
Iguzu, gure zebituak gai egin gaitzala
zure dohain santuak hartzeko.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Eskaini eta hartu dugun opariak
eman diezagula bizia, Jauna:
maitasunean beti Zurekin bat eginik,
fruitu iraunkorrak ekar ditzagun.
Jesu Kristo.